

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Behin betiko onestea kontribuzio bereziak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketa

2020ko otsailaren 19an ALHAOn (20. zk.) argitaratu zenez geroztik, jendaurrean egon zen bitartean, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onetsi da kontribuzio bereziak arautzen dituen zerga ordenantza. Hona hemen hura hitzez hitz:

Kontribuzio berezien zerga ordenantza orokorra

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Asparreneko Udalak, Toki Ogasunak arautzen dituen Arabako Lurralde Historikoaren uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 28. eta 55. artikuluetan xedatutakoaren arabera, ordenantza orokorra onetsi du, obrak egitearen edo udal zerbitzuak jarri edo handitzearen ondoriozko kontribuzio bereziaren, lan horiek subjektu pasiboari onurak edo ondasunen balioa gehitzea badakarkioten.

2. artikulua

Ordenantza hau Asparreneko udalerrri osoan ezarriko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

Kontribuzio berezien zerga gaia da subjektu pasiboak onurak lortzea edo haren ondasunen balioa gehitzea, udalak obra publikoak egitearen edo zerbitzu publikoak jarri edo handitzearen ondorioz.

4. artikulua

1. Hauek izango dira udal obra eta zerbitzuak:

a) Asparreneko Udalak, berari dagozkion helburuak betetzeko eta bere eskumenen barruan, egiten dituenak, haietatik kanpo geratzen direlarik udalak bere ondare ondasunen jabe modura egiten dituenak.

b) Asparreneko Udalak, beste erakunde publiko batzuek emandako eskumenak direla eta, egiten dituenak, eta, legeriarekin bat etorrira, titularitatea lortu ondoren egiten dituenak.

c) Beste erakunde publiko batzuk egiten dituztenak (edo horien emakidadunak), baldin eta udalaren ekarpen ekonomikorik badute.

2. Aurreko zenbakian adierazitako a) letran jasotakoek ez dute galtzen udal obra edo zerbitzuen izaera, nahiz eta hauek eginak izan: kapital osoa Asparreneko Udalarena duten erakunde autonomoek edo merkataritza sozietateek, emakidadunek udal ekarpenekin, edo zergadunen administrazio elkarteek.

5. artikulua

Kontribuzio bereziengatik bildutako diru kopuruak bakarrik erabil daitezke kobratzearen zio izan diren obra eta zerbitzuen gastuak ordaintzeko.

III. Subjektu pasiboa

6. artikulua

1. Kontribuzio berezien subjektu pasibo izango dira pertsona fisikoak zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako erakundeak, zerga ordaindu beharra sortzen duten obretatik edo udal zerbitzuak jarri eta handitzetik onura berezia ateratzen badute.

2. Hona hemen pertsona bereziki onuradunak:

a) Ondasun higieziari eragiten dieten obrak egiteagatik edo zerbitzuak jarri edo handitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, haien jabeak.

b) Enpresa ustiaketekin lotutako obrak egiteagatik edo zerbitzuak jarri edo handitzeagatik, haien titularrak diren pertsonak edo erakundeak.

c) Lurpean galeriak eraikitzeagatik ordaindu beharreko kontribuzio berezietan, galeria horiek erabiliko dituzten enpresa eraikitzaileak.

3. Jabetza horizontaleko erregimena duten kasuetan, jabeen erkidegoaren ordezkariak jabeekideen izenak eta erkidegoan duten partaidetzaren ehunekoa jakinaraziko dizkio udal administrazioari, banakako kuotak igortzeko. Horrela egin ezean, kuota bakarra igortzea onartzen dutela ulertuko da, eta erkidegoa bera arduratuko dela hori banatzeaz.

IV. Zerga oinarria

7. artikulua

1. Kontribuzio berezien zerga oinarria, gehienez, udalerrriak obrak egiteko edo zerbitzuak jarri edo handitzeko jarriko duen diruaren ehunekoa 90. Udalak, agintzeko erabakia hartzerakoan, kasu bakoitzari dagokion ehunekoa ezarriko du.

2. Kostua honako kontzeptuetan dago banaturik:

a) Peritu lanen, proiektu idazte zein zuzendaritza lanen, planen eta programa teknikoaren kostu erreala.

b) Egin beharreko obren zenbatekoa, baita zerbitzuak jarri edo handitzeko lanena ere.

c) Obra edo zerbitzuek hartu behar dituzten lurzoruen balioa, salbu eta erabilera publikoko ondasunak badira, udalari doan eta nahitaez lagatako lurzoruak badira edo legeen arabera lagatako higiezinak badira.

d) Eraikinak eraisteak, edo landaketa, obra edo instalazioak suntsitzeak eragindako kalte-ordainak, baita eraitsi edo okupatu beharreko ondasunen maizterrei ematen zaizkienak ere.

e) Obra edo zerbitzuetan inbertitu den kapitalaren interesa, udalak kontribuzio berezien bidez ordaindu ezin den zatia finantzatzeko krediturik eskatu behar badu, edo kontribuzioen bidez ordaindutakoa finantzatzeko haiek oro har zatikatzen badira.

3. Obra edo zerbitzuen aurrekontuan agertzen den kostu osoa aurreikuspen bat baino ez da izango. Kostu erreala aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa bada, horixe erabiliko da dagozkion kuotak kalkulatzeko.

4. Ordenantza honetako 4.1.c) artikuluan aipatutako obra edo zerbitzuen kasuan, edo udalaren ekarpenak dituzten emakidadunek –artikulu bereko 2. apartatuan aipatuak– egindakoak badira, kontribuzio berezien zerga oinarria ekarpen horien zenbatekoaren arabera kalkulatu da; beste administrazio publiko batzuek obra edo zerbitzu berarengatik ezar ditzaketen zergak alde batera utzita. Edonola ere, artikulu honetako lehen zenbakian aipatu den ehuneko 90eko mugari eutsiko zaio.

5. Zerga oinarria zehazteko, hauxe izango da udal administrazioak jasandako kostua: kostuaren guztirako zenbatekotik udal erakundeak jasotzen dituen dirulaguntza edo sorospenen zenbatekoa kenduta geratzen den kopurua.

6. Kontribuzio bereziaren subjektu pasiboak ematen badu dirulaguntza edo laguntza hori, berorren zenbatekoa pertsona edo erakunde horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehengo eta behin. Dirulaguntza edo laguntzaren zenbatekoa kuota hori baino handiagoa bada, gaindikina gainerako subjektu pasiboen kuota gutxitzeko erabiliko da, hainbanaketaren bidez.

V. Kuota

8. artikulua

Kontribuzio berezien zerga oinarria subjektu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzuen mota eta izaera kontuan hartuz eta arau hauei jarraituz:

a) Oro har, hauek aplikatuko dira, denak batera edo banaka eta ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako, banaketa modulu gisa: higiezinaren fatxadako metro linealak, azalera, bolumen eraikigarria eta katastroko balioa.

b) Ordenantza honetako 6. artikuluan bigarren apartatuko d) letran aipatutako obren kasuan, haiek erabiliko dituzten konpainia edo enpresen artean banatuko da kontribuzio bereziaren zenbateko osoa, bakoitzari gordetako espazioaren arabera edo obren sekzio osoarekiko proportzioan, berehala erabiltzen ez badute ere.

9. artikulua

Aplikatzekoa den arautegiak edo nazioarteko itunek zerga onurak ematen badituzte, onuradunei dagozkien kuota ez dira banatuko gainerako zergadunen artean.

10. artikulua

Ordaindu beharreko kuota ezarri ondoren, korporazioak eskain dezake, subjektu pasiboak hala eskatzen badu, kuota zatikatzeko edo beranduago ordaintzeko aukera, baina gehienez ere bost urteren buruan ordaindu beharko du.

VI. Tributua ordaindu beharra

11. artikulua

1. Kontribuzio bereziak obrak burututakoan edo zerbitzua ematen hasitakoan sortuko dira. Obrak zatikatzerik badago, obraren zati bakoitza burututakoan ordaindu beharko du subjektu pasibo bakoitzak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, kontribuzioa ezarri eta agintzeko erabaki zehatza onartutakoan, Asparreneko Udalak eska dezake kontribuzio bereziak aldeztu aurretik ordaintzea, hurrengo urterako aurreikusi den kostuaren zenbatekoaren arabera. Obrak egiteko aurrerakina eskatzen bada, obra horiek amaitu arte ezin izango da beste urtebeteko aurrerakinik eskatu.

3. Ordenantza honetako 6. artikuluan ezarritakoari jarraituz ordaintzera behartuta dagoen pertsona zein den zehazteko, kontribuzio bereziak sortu diren unea hartuko da aintzat, nahiz eta agintzeko erabaki zehatzean subjektu pasibotzat ageri dena hura onartu zen egunaren erreferentziaz dagokiona izan eta hark kuoten ordainketa aurreratuta eduki, artikulua honetako bigarren zenbakian ezarritakoaren arabera. Agintzeko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa ageri den pertsonak, horren jakinarazpena jasota, kontribuzioa ezartzea eragin duten ondasun edo ustiaketen gaineko eskubideak eskualdatzen baditu, eta hori erabakia hartzen denetik zorra sortu arteko aldi gertatzen bada, kontzejuaren administrazioari eman beharko dio egindako eskualdaketa berri, eskualdaketa egin eta hilabeteko epean; hori egin ezean, administrazio horrek espedientean subjektu pasibo gisa ageri zenaren aurka jo dezake.

4. Obrak guztiz edo zati batez burutu ondoren, edo zerbitzua ematen hasi ondoren, behin betiko zehaztuko da zein diren subjektu pasiboak, oinarria eta banakako behin betiko kuotak, dagozkion likidazioak egingo dira eta konturako entrega gisa konpentsatuko dira aldez aurretik egindako ordainketak. Udal administrazioak egingo du behin betiko zehaztapena, kasuan kasuko obra edo zerbitzurako tributua agintzeko erabaki zehatzaren arauak ezartzen dutenera egokituz.

5. Aldez aurreko ordainketak tributua sortzapean egunean subjektu pasiboaren izaera ez duten pertsonak egin badituzte, edo beraiei dagokien behin betiko banakako kuota gainditzen badute, udal administrazioak ofizioz egingo die dagokien itzulketa.

VII. Kontribuzioa ezartzea eta agintzea

12. artikulua

1. Kontribuzio bereziak ordainarazteko, aldez aurretik kasu bakoitzerako ezarpen erabakia hartu beharko da.

2. Kontribuzio berezien bidez ordaintzekoa den obra bat egiteko, edo zerbitzu bat jartzeko edo handitzeko erabakia ezin izango da gauzatu kontribuzioen agindua onartu arte.

3. Aginduaren erabakia nahitaezkoa izango da; bertan, obra eta zerbitzuetarako aurreikusten den kostua, onuradunen artean banatu beharreko zenbatekoa eta banatzeko irizpideak zehaztuko dira. Agintzeko erabaki zehatza ordenantza honen arabera izango da.

4. Kontribuzio bereziak agintzeko erabaki zehatza hartu eta ordaindu beharreko kuotak zehaztu ondoren, banan-banan jakinaraziko zaizkie subjektu pasiboari, haiek edo haien helbidea ezagunak badira, edo, bestela, ediktu bidez. Interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Vitoria-Gasteizko Udalean, honako gai hauen gainean: kontribuzio berezien egokitasuna, bereziki onuradun direnek kostuetatik ordaindu beharreko ehunekoak, edo dagozkien kuotak.

13. artikulua

1. Asparreneko Udalak bere eskumeneko obrak eta zerbitzuak beste toki erakunde baten laguntza ekonomikoarekin egin edo ematen baditu, betiere kontribuzio bereziak foru araudian jasotakoarekin bat etorriz ezarrita, obrak egitea edo zerbitzuak jartzea bere gain hartu duen erakundeak kudeatu eta bilduko ditu kontribuzio horiek; hala ere, erakunde bakoitzak berari dagokion eskumena mantenduko du, kontribuzioa ezartzeko eta agintzeko erabakiei dagokienez.

2. Erakunde horietakoren batek agintzeko erabaki zehatza onartzen ez badu, batera jardutea bertan behera geratuko da, eta bakoitzak bere aldetik hartuko ditu dagozkion erabakiak.

VIII. Herritarren lankidetzeta

14. artikulua

1. Obrek eragindako jabeek edo titularrek zergadunen administrazio elkarte bat osa dezakete, eta obrak egiteko edo udal zerbitzuak jartzeko eta handitzeko eskatu. Bestalde, Asparreneko Udalak jarri beharreko zatia ordaintzeko konpromisoa hartu beharko dute, udalaren egoera ekonomikoa dela-eta berak ordaindu ezin badu, obra edo zerbitzuaren izaerarengatik dagozkien gain.

2. Halaber, Asparreneko Udalak sustatutako obrak egiteak edo zerbitzuak jarri edo handitzeak eragindako jabe edo titularrek zergadunen administrazio elkarte bat era dezakete kontribuzio bereziak agintzeko erabakia jendaurrean dagoen aldirian.

15. artikulua

Aurreko artikuluan aipatzen diren zergadunen administrazio elkarteak eratzeko ezinbestekoa da erabakia interesdunen gehiengo osoak hartzea; gainera, aldeko botoa ematen dutenek kuoten bi heren ordaindu behar dituzte gutxienez.

Zerga ordenantza honen behin betiko onespeneraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko dute interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Hori guztiak ez dio eragotziko egoki jotzen duen beste edozein errekurtsu aurkeztea.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2020ko ekainaren 30a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ